

>ZARAUZ/SANPELAIQAK'98

## Iñurritzako Mutil-Ardon emakumezkoak dira nagusi

■ Oilaskoak biltzeko usadioari eutsiko diote aurten ere. ■ Sanpelaio festak gaur hasitā.

Zarauztarrik petoan Mutil-Ardokoak direla diote batzuek. Beste batzuek, ordea, Mutil-Ardokoak Sanpelaioakoak direla eta Sanpelaio ez dela Zarautz. Besteek, berriz, Sanpelaio dela benetako Zarautz, herriaren bihotza. Kontuak kontu eta betiko eztabaidak eztabaida, Mutil-Ardokoak aurten ere Iñurritzako Sanpelaioak antolatutuzte eta, gainera, urtero bezala oilasko biltzeko usadioari eutsiko diote bihar goizaldean.

Geri BERASALUZE

Izenak aurkakorik badio ere, Mutil-Ardon neskek dira nagusi azkenaldian. Lehen, garai batean, mutilak bakarrik onartzen zituzten taldean baina, neskek parte hartzea bozketa bidez erabaki zutenetik, gauzak aldatu egin dira.

Mutil-Ardo bera noiz sortu zen ez dakite erantzuten taldeideek. «Beti izan dugu kuriositate noiz sortu zen jakiteko, auzoko zaharrenek ere Mutil-Ardo betidanik ezagutu dutela esaten digute eta», diote.


Mutil-Ardok baserri baserri oilasko biltzen arirezko usadioa du oinarri. Ekainaren 26 eta 27 elkartzan dituen gauean, goizaldeko 5ak aldera elkartzan dira guztiak eta, baratzuri zopa jan ondoren, bi taldetan banaturik usadio zaharra berriren dute auzoan eta inguruan. Argitu dutenez, «bi talde egiten ditugu. Bat goitiki joaten da eta bestea behetik, bakoitza txistulari eta trikitilariekin. Goiko taldea goiko kanpinaren aldera abiatzen da eta

bestekoa Asti ingururaino. Lehen baserrietan kafea edo ateratzen digute eta ondorengoetan txakolina. Gero, bi taldeak goizeko 9ak aldera elkartzan gara Iñurritzako soziedadean eta gosarilegea egiten dugu».

### Lehen, baserri gehiago

Ondoren, berriro ere bi taldetan banaturik herri alderantz doazen auzo inguruko kaleetan ibiltzen dira eskean, eta berriro bi taldeak bat eginik dantzan itzultzen dira Iñurritzako zelaira. Bertan, guztiak batera dantzatu ondoren, eguerdia pasatuta, bazkaria egiten dute.

Lehen ibilaldia batez ere baserri girokoa izaten da, eta bigarrena, berriz, kaletarragoa. Gutxi gorabehera hamarren bat baserri igarotzen dituzte lehen ibilaldian. Mutil-Ardokoek diotenez, «lehen askoz baserri gehiago zegoen hemen eta oilasko biltzeko usadioa ere askoz indartsuago zegoen. Kontuan izan behar da oilasko biltzea ez dela eskean ari-



Aurreko edizio bateko irudia.

EGN

tzea bakarrik. Dantza egin ondoren, etxeko egun onak eman, urtea noia joan den galdetu eta lasai antzera aritzen gara solasean. Harreman berezia izaten da. Urte horretan etxean norbait hil bada, isilunea egiten da. Horren kontura izan dugu hankasartzerik, isilunea egin beharrean dantzan hasi eta horrelakoak. Hori guztia galtzen joan da baserriekin batera».

Oilaskoak biltzeko ohitura bezala, baserri baserri egiten den dantza bera ere berezia da. Lastozko txapela jantzita eta lepoan zapia dutela dantzatzan dute Mutil-Ardokoek eta, esan digutenez, «oilasko biltzea egiten den

beste herrietan ere behar bada egingo da horrelakorik baina, gainerakoan, ez dugu ezagutzen dantza hau. Berezia da».

### Gibel jatea etzi

Bildutako oilaskoekin eta ekainaren 28an gibel jatea egiten dute, eta bertan erabakitzen da, zozketa bidez, hurrengo urteko Mutil-Ardoko junta. Ez da hau bakarrik, ordea, Sanpelaioetan Mutil-Ardok egiten duena. Izan ere, Zarauzkoak baino gehiago, Iñurritzako jaiak dira taldeki-dezentat Sanpelaioak eta, beraz, auzoko festak antolatzen dituzte

egunotan. Aurten ere, Iñurritzako Mollari Auzo Elkartearekin batera, hiru eguneko egitaraua antolatuta dute gaur, bihar eta etziko.

Gaur, esaterako, goizeko 9etan txistularien alborada izango da Iñurritzan eta gero, 11etan, meza nagusia. 12.30ean zelaiari aurrakua dantzatuko dute Mollari dantza taldekoek. Leku berean, arratsaldean erromeria egingo da «kaletarren inbasioa eta guzti». Kaletarrek herri-rako itzulita egiten dutenean, berriz, gaueko 10.30ean edo, erromeria egingo da Muxutruk taldearekin.

**Optika Garrastazu**

Santa Marina, 24  
Tfnua.: 943-13 06 13  
20800 ZARAUZ

**ARRANO ELKARTEA**

KULTUR EKINTZAK, DANTZA, TXISTU, DANBOR, IKASTARQAK, MONTETXIO KOROIA ETA ORKESTRA,  
GIRO JATORRA, BOKATAK ETA PLATER KONBINATUAK

**Marina Txiki taberna**

Lonja Zahorra, z/g • Tel. 943 83 00 17 • 20800 ZARAUZ

**PIZZERIA MOLLARRI**

Elaboracion propia. Tambien para llevar.  
La nueva pizzeria zarauztarra os desea unas Felices Fiestas  
Patsiku, 2 • Tel. 943-89 01 68

**KAFETEGIA EGUZKI**

**BEREZITASUNAK:**  
Pintxo hotz eta beroak.  
Eguzki ebakia.  
Goizeko 7.30etatik irekia

Nafarroa kalea, 8  
ZARAUZ

**MAXI-EROSKI**

Menuak  
Parrilan erretako arrain edo haragiak

**Arralde**

Arabako kalea, 41  
Tel.: 83 44 33  
20800 ZARAUZ

**KAFETEGIA-JATETXEA**

**KUPELA LAU TEILA**

«Giro gaztea eta jatorra!»  
Bizkonde Kalea • Tel. 943-13 02 94 • ZARAUZ

**mozusta JATETXEA**

• Eguneko menua. • Asteartean babarrun jatea.  
• Menu bejeterianoa eta mexikarra enkarguz.

Allemendi, 2. VISTA ALEGRE • Tf. 83 26 51 • ZARAUZ

**MONDRA**

**KAFETEGIA**

Plater konbinatuak

Mixelena Kalea, 27  
Tf. 83 45 61  
ZARAUZ

**OKINDEGIA GOZOTEGIA**

Zure aurrean, era mateko unean egindako ogia Oilasko erreka

Mixelena Kalea, 25  
ZARAUZ